

Hau ote da ordaina?

EUSKAL PRESOEN gaia ondo jorrazteko komeni da bere testuinguru historikoa ondo zehaztea, bestela unean uneko lupa-begiradak gertukoaren distortsio esanguratsua eman diezaguke. Eta testuinguru hori, euskal gizarteak azken mende erdian bizi izan duen gatazkaren amaiera da. Kendu gatazka nahi bada, eta jarri ETaren amaiera, hor kontsentsua zabalagoa da eta. Kontua da gatazkatik gatzela eta elkarbizitzara goazela, edo hori gura dela. Eta espetxe politikara itzulita, esaldi horrek esan gura du presoak diren egoera batetik presorik ez den errealitate batera goazela.

Trantsizio horretan gaude, bide gaitz eta malkartsu horri dagokion bihurgune horietako batean. Denetik da bide horretan, hainbat ikuspegi, irainak, atzera egin beharra, onartu beharra, irentsi beharra... eta gatazka bortitzetan inoiz ardatzean jartzen ez diren bi osagai, baina elkarbizitzaren eraikuntzan giltzarri direnak: sufrimendua eta pertsonen eskubideak. Inoiz eta inork une honetan galdu ezin duen perspektiba da hau, Madrilek, Lakuak, alderdiek, hedabideek... eta, zeresanik ez, presoek presoekin galdu ezin duten ikuspegia, bide hau egiteko haiek ere kontsentsu oso zabala beharko dutelako.

Mozorrotuta edo ez, bide hori akordio politiko batetik etorriko da. Alde horretatik bada esanguratsua Barne Ministerioaren planari PPren leizeetako ahotsen erantzuna, Jaime Mayor Oreja bada adibide on bat: "Akatsa da esatea espetxe politika ez dela aldatzen eta gero beste plan bat egitea". "Ez da aldaketarik espetxe politikan", dio Mariano Rajoy berak. Baina *El Mundo*-k argi erantzuten dio, esaten zen ETA desegin arte ez zela hurbilketarik izango, "bada bai, ETA ez da desegin eta hurbilketak izango dira".

MUGIMENDURIK baden ala ez, hori da zalantzetakoa, eta denak adierazten du baietz, zerbait badela, bestela PPren Gobernuak nahikoa zuen dena zegoen bezala uztea eta listo. Mugimenduen interpretazioan dago gakoa, ETak bere borroka armatuaren amaieraren berri eman zuenetik, sei hilabete iragan direla eta inmobilismoaren pilota Espainiako Gobernuaren teilatuan geratu dela. Eta mugitu da.

Bistan da ez dela aski, hasiera bat besterik ez dela, baina jokoaren arauak non diren finkatzen ditu eta hori bera bada, gatazka armatuaren amaieran, indar harremanen erakusgarri. Eremu horretan Esta-

tuak irabazi egin du, eta bukaera ere berak markatuko du. Areago, gatazkan zehar presoan erabilera politikoa etengabekoa izan bada, bukaeran ere hala egingo du Estatuak. Hori da ezker abertzaleak bere aldebakarreko erabakietan kontrola ez dezakeen eremu garrantzitsuen, eta, aldiz, hori da Estatuak kirtenetik heldua duen esparru bakar eta erabakigarria.

Gatazka armatuaren amaiera gauzatzean, orain arte abilezia handiz jokatu du ezker abertzaleak eta politikoki zokoratua egotetik lehen plano politikora jauzi egiten asmatu izan du, indarrez gainera. Baina tamainako jauzi bat inolako ordainketarik gabe gertatuko dela pentsatzea ere ez da erabat errealista. Akaso Espainiako legediak behartutako guztia irenstea ez da gutxi, edo bai, denborak eta ezker abertzaleak berak ebaluatu beharko dute.

Eta presoan eremuan ere beste hainbeste, sinbolikoki Barne Ministerioak behartutakoaren eta herrietan, bereek, egingo dizkieten ongi etorrien orekan egongo da presoan erantzuna, lehen urratsean preso bakoitzak eman beharko duena, eta bigarrean, ezker abertzale osoak baloratu beharko duena.



XXIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2012

Lanak aurkezteko azken eguna: 2012ko maiatzak 14

- Sariak:
- Rikardo Arregi Kazetaritza Sari nagusia
 - Epaimahaiaren Sari Berezia
 - Kazetari Berria Saria
 - Ohorezko Aipamena

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua
943 300 831 • euskarazerbitzua@andoain.org • www.andoain.org

